

Phineas hamazazpigarren teilatuan dago jesarrita. Bere ondoan, erretilu txiki batean, sagar erre bi ditu. Egunero ekartzen ditu Phineasek sagar erre bi teilatura.

Ez da teilatu handia; hamar urteko ume batek hogei urratsetan pasatuko luke. Esertzeko aproposa da, parte batzuk zapal-zapalak ditu. Azpian hiru solairuko etxe arraroa dauka, XX. mende hasierakoa. Herriko hamazazpigarren teilatua da geltoki-etxetik zenbatzen hasita.

Herriko teilatu guztiak daukate zenbaki propioa. Herri-eguneari 407 teilatu daude, baina desberdina da etxearen zenbakia –atari gainean dagoena– eta teilatuarena. Izan ere, etxe batzuek hiru eta lau teilatu izan ditzakete; hiru edo lau zenbaki beraz. Phineas hamazazpigarren teilatura etortzen da egunero bazkaldu eta ordubetera.

Tren-geltokiari begira dago Phineas. Horregatik etortzen da egunero hamazazpigarren teilatura, hain zuzen ere, tren-geltokia eta errepidea ikusten direlako bertatik. Herri-rako sarrera bakarrak dira tren-geltokia eta errepidea, eta hamazazpigarren teilatutik baino ezin dira biak ikusi. Kontua da tren-geltokian daudenek ez dutela errepidea ikusten eta errepidetik ezin direla trenak zaindu. Hamazazpigarren teilatutik, berriz, biak ikusten dira oztoporik gabe.

Zarata txiki bat entzun du Phineasek ezkerreko teila-tuetatik. Ez dio tren-geltokiari begiratzeari utzi, baina badaki Musone datorrela hamazazpigarren teiltatura. On-do ezagutzen ditu Musoneren zaratak.

Pertsona bat zotinka ari da. Hiru ordu eman ditu zo-tina kendu ezinik. Gorputz osoa endredatu dio zotinak eta urduri jarri ere bai. Hiru orduak ondo beteta daude-nean joan zaio zotina, etorri bezala. Zotina hasi aurretik baino bake handiagoa dauka orain noski. Horrelakoa da Musone beti.

Phineasen teiltatura heldu da Musone, hamazazpiga-rrenera.

–Eskerrik asko.

Esan dio Phineasek.

–Ez da ezer.

Esan du Musonek. Phineasengandik metro eta erdira jesarri da. Esan du:

–Etorri da?

–Ez –Phineasek.

Isilik geratu dira. Silueta bi ikusi dituzte orduan eu-rengana bidean, eskumako teilatuetatik. Apur bat urduri jarri dira, harik eta arropak ondo ikusi dizkieten arte: ez daukate gabardina laburrik. Lasaitu egin dira.

Datos eta Bleuler dira noski. Bleuler galdu egiten da teilatuetatik oraindik, ez ditu ondo ezagutzen, horregatik laguntzen dio Datosek ia egunero. Aurreko astean labain egin zuen Bleulerrek hogeita zortzigarren teiltatuan eta fi-sura txiki bat dauka saihets-hezur batean.

Phineas eta Musoneren parera heldu direnean:

–Eskerrik asko.

Esan die Phineasek.

–Ez horregatik –Bleulerrek.

–Etorri da?

–Ez.

Hitz egiten hasi dira. Kirolez hitz egin dute eta hiru kirol aipatu dituzte bereziki. Datosek asko daki hirurez. Gero olatuei buruz hitz egin dute, gehiegi ere ez. Musonek neska bat aipatu du gero, eta beste guztiek baietz egin dute buruaz. Gero neska berari buruz hitz egiten jarraitu du Datosek eta besteak mota guztietako keinuak egiten hasi dira, Bleuler izan ezik. Europako leku askotan bizi izan da Bleuler herrira etorri orduko.

Etenik gabe aritu dira hitz egiten Datos eta Bleuler heldu direnetik, Datosen erruz batez ere, baina une jakin batean arreta erabat desbideratu du Phineasek; ondokoek diotena aditzeari utzi dio. Izan ere, tren bat sartu da geltokira. Jende gutxi jaitsi da trenetik, uda delako. Gizonezkoak batez ere. Hiru ume. Euritakoa trabatu zaio andre bati tren-atean. Askatu egin du.

Phineasek ez du trenean ikusi; tren horretan ere ez da etorri. Lagunen solasari heldu nahi izan dio berriro, baina hizketaldi luze baten erdian daude:

–Lumière anaiek bezala.

Esan du Bleulerrek.

–Egia –Musonek.

Eguraldia ona da, haizeak iparretik jotzen du. Bleulerren sudurra gorritzen hasi da eta Musone etzan egin da teilen kontra.

Iluntzera arte egon dira hamazazpigarren teilatuan, egunero bezala. Bederatzi tren gehiago ikusi ditu Phinea-

sek, baina alferrik; ez da gaurko trenetan etorri. Errepi-dea ere zaindu dute Phineasek eta gainontzekoek. Errepi-detik etortzekotan, badakite tren-geltokiaren ondoan utziko duela autoa eta geltoki-zaindariarekin hitz egingo duela. Ez da beraz horren zaila herrirako sarrerak kontrolatzea. Geltoki ondoan ez da gaur ere autorik gelditu.

Musone izan da etxera alde egiten lehena. Ezkerreko teilatuetatik joan da, astiro noski; sorbaldak asko mugitzen ditu okertuta dauden teilatuetatik ibiltzean. Phineasek:

–Eskerrik asko.

Esan dio.

–Ez da ezer.

Esan du Musonek.

Bleulerrek handik gutxira esan du alde egin behar duela. Datosek lagundu dio, ia egunero bezala, eskumako teilatuetatik. Saihets-hezurreko fisurak min ematen dion galdetu dio.

Phineasek ez du Bleulerren erantzuna aditu, urruneko teilatuetan daudelako dagoeneko. Bleulerrek, gainera, sekula ez du ozen hitz egiten, aitaren eraginez seguruenik.

Bakarrik geratu da Phineas hamazazpigarren teiltuan. Nahiko gau iluna da eta pentsatu du honezkero ez dela etorriko, ez trenez, ez errepidetik. Pentsatu du alferrik dagoela zain, etortzekotan iluntzea baino lehenago etorriko dela. Sagar erreen erretilua hartu eta etxerantz egin du teilatuetatik. Sagar erreak osorik itzuli dira etxera, egunero bezala.



Kanpotarrek uste dute herriko teilatu bakoitzak zenbaki bakarra duela. Ez da hain sinplea: teilatu bakoitzak zenbaki bi ditu gutxienez. Izan ere, teilatuak zenbatzeko modu desberdin bi daude herrian, numerazio desberdin bi (gutxiengo batek hirugarren numerazio bat ere badu). Herriko batzuk tren-geltokitik hasten dira zenbatzen eta geltoki-etxea da eurentzat herriko lehen teilatua. Beste batzuk, berriz, itsasotik hasten dira eta portuko lehenengo etxeari ematen diote 1 zenbakia.

Herriko guztiek ezagutzen dituzte numerazio biak, jakina, baina erabiltzen dutenaren arabera jakiten da nongoak diren, goikoak ala behekoak, geltokikoak ala portukoak.

Oso ondo ezagutzen dituzte teilatuak herriko gehienek, adin batetik aurrerakoek batez ere; izan ere, jende asko ibiltzen zen teilatuetatik Liburu Brodatua baino lehen. Ohitura handia zeukan herriko jendeak teilatuetan biltzeko, eta are gehiago: teilatu jakin batzuek izen propioa ere bazeukaten. Teilatu-izen gehienak galdu egin ziren gero, hala ere, Liburu Brodatuaren garaian. Bakan batzuk gorde dira: merkatuak, esate baterako, bost teilatu ditu eta handienari “Pazientzia teilatua” esan izan zaio beti.

Hamazazpigarren teilatuan daude Datos, Bleuler eta Phineas gaur ere. Phineasek erretilua dauka ondoan; erretiluan sagar erre bi. Hamazazpigarren teilatuak ez dauka izen propioirik eta Liburu Brodatuaren garaia baino lehen ere ez zen gehiegi erabiltzen, herriaren bazter batean dagoelako.

Datosek gazta erdia ekarri du teilatura. Musoneren zain daude jateko, baina normalean baino beranduago dator gaur. Jaten hasi dira beraz. Handik gutxira heldu da Musone; gazta zati bat geratzen da oraindik.

–Eskerrik asko.

Esan dio Phineasek.

–Ez horregatik –Musonek.

Gero esan du:

–Rutonekin egon naiz.

–Eta?

Galdetu du Datosek.

–Ezetz –Musonek.

Rutonek ez du teilatuetara igo nahi. Ematen du dena aldrebestu dela herrian, Rutonen aita eta osabak zirelako sasoi batean, Liburu Brodatua baino lehen, teilatuetatik gehien ibiltzen zirenak.

Utzi dioten gazta zatia osorik jan du Musonek. Gero Phineasen ondoan dagoen erretilua seinalatu eta “Sagararak orain?” esan du. Phineasek ez dio begiratu ere egin, geltokian tren bat sartzen ari delako. Trenak alde egin duenean erantzun dio:

–Ez.

Esan du. Gero esan du:

–Sagararak ezta ukitu ere.



Sargori egon da gaur. Goizetik sartu da hego-haizea eta Musonek buruko mina izan du eguerditik. Bleulerrek ez du oraintsura arte jakin hego-haizea zer den ere, Phineasek azaldu zion arte. Berak ere erdi zorabiatuta eman du egun osoa.

Eguraldi ustela gorabehera, hamazazpigarren teilatuta bildu dira laurak arratsaldean, egunero bezala. Inoizko

motelen hitz egiten ari dira. Phineasek eskerrak eman dizkie beste hirurei teilatura agertu direnean, egunero bezala.

Teilatura heldu eta hiru ordu laurdenera aldatu da haizea. Arnasa lasaiago hartzen hasi dira teilatuko laurak, baina berandu gabe sentitu du Datosek tanta lodi bat eskuan.

–Euria.

Esan du. Trumoia entzun da. Teilak iluntzen hasi dira eta Musone zutunik jarri da alde egiteko. Datosek eta Bleulerrek gauza bera egin dute, baina Phineasek ezetz esan du, ez doala. Esan du goizegi dela oraindik eta zain egon behar duela. Esan du:

–Ordubete.

Euria benetakoa da orain eta, pentsatzeko astirik ere gabe, teilatu azpietako eskailera batetik sartu dira beste hirurak.

Bakarrik geratu denean, sagar erreen erretilua hartu eta hanken gainean jarri du Phineasek. Gorputz-enborra aurrerantz tolestu du gero, sagarrak ahalik eta gutxien busti daitezten. Ilea dauka zeharo bustita, belarrietatik tantaka. Iluntzera arte egon da horrela. Sagar erreak oso-rik itzuli dira etxera berriz ere, egunero bezala baina ur gehiagorekin gaur.



Phineasek honako hau gogoratzen du batzuetan:

Hamaika urte bete zituen egun berean, otsailaren hamabian, ohetik altxatu eta etxean ez zegoela inor. Gogoratzen du Sora arrebaren logelara joan zela lehenengo, baina hutsik zegoela, eta ohea egin gabe, eta leihoa zabalik otsai-

la izan arren. Gogoratzen du hotz handia sartzen zela leihotik eta sukaldeko lau aulki zeudela logelaren erdian.

Phineasek gogoratzen du egongelara joan zela gero, eta larunbata zela, eta Sorarekin apur bat haserre zegoela. Gogoratzen du aitaren besaulkian egon zela jesarrita egongelan, arrebaren zain, eta oinak hoztu egin zitzaizkiola. Gogoan du uste baino beranduago heldu zela aita.

Gogoratzen du ez ziola aitari ezer galdetu. Ez zion Sora non zegoen galdetu, apur bat haserre zegoelako arrebarekin. Gogoratzen du Soraren ohea egin zuela aitak eta hori ere arraroa zela. Gogoratzen du ez ziola aitari Soraren logela atontzen lagundu, arrebarekin apur bat haserre zegoelako oraindik.

Gogoratzen du Sorak 23 urte zituela orduan, aitak 54 eta berak 11 egin zituela egun horretan bertan. Gogoratzen du ia hogeitun urte direla arreba desagertu zenetik.

Hori da Phineasek batzuetan gogoratzen duena.



Bakarrik dago gaur Phineas hamazazpigarren teila-tuan. Goiz etorri da eta zazpi tren ikusi ditu orain arte. Laugarrena atzerapen handiarekin heldu dela kalkulatu du. Bosgarrenean neska ilegorri bat ikusi du trenetik jais-ten, atezuan jarri da, baina berehala konturatu da gaztee-gia dela arreba izateko. Sorak berrogeita bi urte izan behar ditu honezkero, eta geltokian ikusi duen neska ez da Phineas baino askoz nagusiagoa. Hurrengo trenaren zain geratu da. Auto gutxi dabil gaur.

Bleuler agertu da hamazazpigarren teiltura handik gutxira. Bakarrik dator aspaldiko partez: esan du Datos ez dela gaur etorriko.

Bost minutuz aritu dira Bleuler eta Phineas hizketan garrantzizko ezer esan gabe. Bleuler hasi da, halako batean, ganorazko galdera batekin:

–Noiz erretiratu zen zuen aita, Phineas?

–Hirurogeita hamahiru urte dauzka orain...

–Urte batzuk orduan.

–Zortzi.

–Eta zure arrebak ez daki... –Bleulerrek.

–Zer?

–Erretiratuta dagoela.

–Nire arrebak ez daki ezer.

Modu ustelean esan du Phineasek azken hori. Hogei urte dira laster Sora desagertu zenetik, eta inork ez daki oraindik non dagoen, zer egiten ari den eta zergatik ez den itzuli. Hilda dagoela pentsatzeko ohitura ere hartu du Phineasek. Bleulerrek galderekin jarraitu du:

–Eta berak uste du geltokiko etxean bizi zaretela oraindik...

–Nork?

–Sorak.

–Bai –Phineasek.

–Eta nor bizi da orain geltokiko etxean?

–Inor ere ez. Bulegoak dira orain. Gu izan ginen azkenak... Tren-konpainiako bulegoak dira orain.

–Eta nora bidali zuen gutuna Sorak orduan?

–Geltokiko etxera, bulegoetara –Phineasek.

–Eta nola heldu da zuen oraingo etxera?

–Kasualitatez.

Phineasek azaldu du batetik bestera ibili zela Soraren gutuna bost astez eta casualitatez heldu zela euren etxera azkenean, maiatzean. Gero esan du ez duela arreba galduta ikusi nahi, batetik bestera, gutuna ibili zen bezala, ez bost astez, ez bost minutuz. Bleulerrek badaki horregatik etortzen dela egunero teilatura, bazkaldu eta ordu betera beti.

Bleulerrek gutuna erakusteko eskatu dio. Phineasek praktetako poltsikotik atera eta Bleulerren eskuetan jarri du: orri bakarra da, arkatzez. Bleulerrek denbora asko eman du gutunari begira, paperean idatzita dagoena irakurtzeko behar dena baino askozaz gehiago.



Liburu Brodatua, bosgarren orrialdea:

IV. legea (Lege Nagusia, A mailakoa)

Deskripzioa

Ohartu gara Eskualde honetako jendeak joera handia duela teilatuetarako. Esan nahi baita teilatuetatik ibiltzeko zein teilatu jakin batzuetan biltzeko ohitura hartu dutela azken belaunaldietan. Jakin dugu, bestalde, zenbakiz sailkatuta daudela teilatu guztiak. Are gehiago: susmoa daukagu numerazio desberdinak asmatu dituztela. Hori gutxi balitz, teilatu batzuei, ez gutxiri, izena ere jarri diete. Teilatu-izen batzuk jaso ditugu orain arte; hala nola, Pazientzia teilatua, Golgota I eta Golgota II (hirugarrena ere badela uste dugu) edo Ghana teilatua. Lan han-